

Martxoaren 5ean, lanuztea eta mobilizazioan Aiaraldean, enplegu eta bizitza duinaren alde

Aiaraldea egoera kezkarria dago. Enplegu suntsiketa, lan-baldintzak okertzea, enplegu prekarioa eta zerbitzu publiko askoren egoera izugarriak dira.

Arreta berezia merezi du Tubacex-en gertatzen ari denak, EEE batekin eta zuzendaritzak egindako 150 kaleratzen mehatxuarekin, eta baita Valvospain-eko itxiera eta 79 kaleratzeek ere, hauek ehundaka familia eta gure eskualdearen etorkizunean izango dituzten ondorioekin.

Baina zoritxarrez, izozmendiaren muturra baino ez da hau. Bi kasu larri hauei gehitu behar zaizkie enplegua suntsitu duten hamarnaka enpresa, kaleratuak izan diren aldi baterako langileak, modu bidegabean ABEEtan egon diren langileak, osasungintza publikoko langileen egoera, zerbitzu sozialetakoena, hezkuntzakoena, ostalaritza eta merkataritza sektoreen egoera, edo eskualdeko enpresa txiki eta autonomoek bizi duten egoera larria. Honi gehitu behar zaio zenbait kolektibok bizi duten egoera jasanezina: gazteak, emakumean migranteak... Gure eskualdea, bertako biztanle eta langileak egoera kritikoa gaude eta ez dugu onartuko gu izatea ordainduko dugunak.

Guzti horrengatik, ELA, LAB, ESK eta STEILASek, euskal gehiengo sindikala osatzen dugun sindikatuok, datorren martxoaren 5ean Aiaraldean enplegu eta bizitza duinaren alde mobilizatza dei egiten dugu. Eskualde mailako 2 ordutako lanuztea egingo dugu 11:00etatik 13:00etara eta 11:30ean manifestazio bana egingo dugu Amurrio eta Laudioko plazetatik "Aiaraldean enplegu eta bizitza duina" lemarekin.

Bizi dugun egoerak, enplegu suntsiketarekin, berau galtzeko arriskuarekin, enplegu prekarioarekin..., erantzun global, bateratu eta anitza eskatzen du gure eskualdean. Inoiz baino beharrezkoagoa da enpleguaren alde mobilizatzea, eskubide laboral eta sozialen alde, kalitatezko zerbitzu publikoen alde... azken finean, enplegu eta bizitza duinaren alde, eta gure eskualdearen eta bertoko langileen etorkizunaren alde.

Horrengatik dei egiten diegu egoera honek eragiten die langile, enpresa, sektore eta kolektibo guztiei bat egin dezaten deialdi honekin, eta honela, gure eskualdeko enplegua eta etorkizunaren aldeko mobilizazio masiboa bihurtu dadin.

Laudio, 23 de febrero de 2021